

**NAHITAEZKO MUGIKORTASUNERAKO EKITALDIAK ARAUTZEKO
JARRAIBIDEAK, ESKUALDEKO LANPOSTUETARA BEHIN BETIKOZ
ATXIKIRIKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO FUNTZIONARIOEI DAGOZKIENAK**

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren martxoaren 17ko 519/2011 Ebazpenean ezarritakoaren arabera, eskualdean behin betiko destinoa duten Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleen eta egoera ahulean dauden ikasleei (lehenago: gutxiengoak) laguntzeko Programako irakasleen urteroko mugikortasuna egin beharra dago 2018-2019 ikasturterako.

NORK HARTUKO DUEN PARTE IKASTETXEAK AUKERATZEKO EKITALDIAN

Mugikortasun prozedura honetan **parte hartu beharko dute:**

- Destinoa eskualdean duten irakasleak, beren ikastetxean edo ikastetxeetan beharra osorik desagertu bada.
- Lekualdatze lehiaketen bidez eskualdean destino berria lortu duten irakasleak.
- Destinoa eskualdean izanik, eskualde horretan ikastetxez aldatzeko prozeduran beren borondatez parte hartu nahi duten irakasleak.
- Aurreko kasuetakoren batean egonik, zerbitzu eginkizunetarako baimena eman zaiona seme-alaba zaintzeko eta aparteko egoeretarako, azken kasu horretan zerbitzu eginkizunetan ikastetxe jakin baterako daudenak izan ezik.

Ez daude urteko mugikortasun **prozedura honetan parte hartzera behartuak** ondoko irakasleak:

- Betetzen duten lanpostua ibiltari izatetik zerbitzuak ematen dituzten ikastetxeetako batean karga lektibo osokoa izatera pasatzen denean.
- Betetzen duten lanpostua ikastetxe bakar batekoa izatetik ibiltari izatera pasatzen denean.

- Betetzen duten lanpostuan, zerbitzuak ematen dituen ikastetxeetako batean irakastordu batzuk edo guztiak desagertzen direnean eta beste ikastetxe batean osa daitezkeenean.

Honako hauek **ezin izanen dute** aukeraketa ekitaldian **parte hartu**:

- 2018-2019 ikasturtean ikastetxe batean zerbitzu eginkizunak esleitura ditzutenak.
- Borondatezko eszedentzia emana dutenak lehen urtean lanpostuaren erreserba izanik, betiere eszedentzia-aldia 2018ko irailaren 1ean hasten bada.
- 2018-2019 ikasturterako liberazio sindikal baterako proposamena hartu dutenak.

AUKERAKETAREN HURRENKERA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Eskualdean behin betiko destinoa duten Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleek eta egoera ahulean dauden ikasleei (lehenago: gutxiengo kulturalekoak) laguntzeko Programako irakasle funtzionarioek aukeratu beharko dute kontuan hartuz zein hizkuntzatan lortu zuten lanpostua lekualdatze-lehiaketan eta martxoaren 17ko 519/2011 Ebazpenari jarraikiz:

- Antzinasuna, eskualdea, espezialitatea edo programa behin betiko destinoa izanik duen atxikipenean; borondatezko eszedentziako denbora ez da zenbatuko.
- Antzinasuna behin betiko destinoa duen atxikipenean, borondatezko eszedentziaren denbora zenbatu gabe, dagokion espezialitate edo programan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeak banatzen diren eskualdeetako edozeinetan.
- Maisu-maistren Kidegoko funtzionario gisa duten antzinasuna. Abenduaren 30eko 31/1991 Legearen 29. xedapen gehigarriaren arabera

kidegoan sarturiko langileen kasuan, Maisu-maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa duten antzintasunari lan-kontratudun finko gisa egiaztatuta dutena gehituko zaio, lehenengo zerbitzu urtea kenduta.

- Maisu-maistren Kidegoan sartzeko hautapen prozeduran lortutako puntuazio handiena.

AUKERATZEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA

Maiatzaren 9

- Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, aukeratzeko jarraitu beharko luketen hurrenkeran antolatua 519/2011 Ebazpenean ezarritako baremoaren arabera.

Maiatzak 10, 11 eta 14

- Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleen behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioak.

Maiatzaren 25

- Behin-behineko zerrendak argitaratzea:
 - Nahitaez parte hartu behar duten pertsonak (zerrenda honetan ez dira sartuko parte hartu beharreko egoeretan ez dauden pertsonak)
 - Eskainitako lanpostuak.

Maiatzak 28, 29 eta 30

- Borondatezko parte-hartzea eskatzeko epea.

Ekainaren 7

- Behin betiko zerrendak argitaratzeko eguna:
 - Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleak.
 - Lanpostuak aukeratzeko ekitaldira deitutako irakasleak, eskualdeka.

- Eskainitako lanpostuak. Lanpostuotan azken orduko aldaketak gertatuz gero, ahoz jakinaraziko dira lanpostuak aukeratzeko ekitaldian bertan.

Ekainaren 11

- Lanpostuak aukeratzeko ekitaldia.

AUKERAKETA EKITALDIA

Deituriko irakasleek eskualde bakoitzerako ezarritako hurrenkeran aukeratu beharko dute. Eskualdean deituriko irakasleak baino lanpostu gutxiago egonez gero, irakasleek, bakoitzak lanpostua aukeratzeko duen hurrenkeran, lanpostua hartzeari uko egiten ahalko diote, aukeratzailer adina lanpostu eskaini arte. Arrazoi hori dela-eta, beren eskualdean lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonak irakaslanik ez izateagatik ikastetxetik aldarazi dituztenen zerrendan sartuko dira, ekainaren bukaeran destinoak esleitzeko egingen diren jendaurreko ekitaldietarako.

Lanpostuak aukeratzeko ekitaldira joaterik ez duenak beste norbaiti eman beharko dio baimena bere ordeztaritu dadin. Horretarako, webgunean argitaratuko den dokumentazioa bete beharko du.

Baten bat ez bada lanpostuak aukeratzeko ekitaldira agertzen, Giza Baliabideen Zerbitzuak haren eskualdean hutsik gelditzen diren lanpostuetako bat emanen dio ofizioz.

Ekitaldi hau bukatzean, parte-hartzaile bakoitzak dagokion aukeratzeko akta sinatuko du.

LANPOSTUAK

Lanpostuak zehazteko orduan ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Funtzionarioek okupatzen ez dituzten lanaldi osoko lanpostu guztiak eskainiko dira.


- Oharretan beste espezialitate batekin konpartituak direla jarria duten lanpostuei ezin izanen zaie uko egin, lanpostu librerik ez badago.
- Hizkuntza eskakizuna duen lanpostu bat aukeratu ahal izateko, irakasleak eskakizun hori izan beharko du.

Lanaldi partzialeko lanpostuak eskainiko dira, eta funtzionarioen batek haietako bat hautatuz gero (58 urtetik goitikoan kasuan izan ezik) konpromisoa hartuko du lanaldia dagokion heinean laburtzeko eskatzeko, honako taula honen arabera:

| | Lan ordutegia. Jardunaldia | | | | | | | | |
|--------------------------------|----------------------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----------|
| Laburtzea | 2/3 | 1/2 | %45 | 2/5 | 1/3 | 1/4 | 1/6 | 1/8 | > 58 urte |
| Lanpostuaren lanaldia (orduak) | 8 | 13 | 14 | 15 | 17 | 19 | 21 | 22 | 22 □ 23 |

Iruñean, 2018ko maiatzaren 9an

GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza / Educación
Giza Baliabideen Zerbitzua
Servicio de Recursos Humanos
Francisco Javier Iglesias Álvarez

